

Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Linbotik atera

Belaunaldi batekoa naiz zeinak pentsatu zuen mundua berreraikitze-ko ahalmena gure eskuetan zegoela. Nerabe ginen diktadorea hil zenean, eta, adin tarte horrek ematen duen kemenaz blai, gauzak aldatu zitezkeela sinestuta geunden. Eta zeregin horretan eman genuen urte mordoa, gure alorrean ekimenak bultzatuz eta egitasmoak sortzen. Dena egiteko zegoenez egiteari ekin genion. Adorez eta baikortasunez. Eta gaur egun arte jardun horri eskaini diogu gure denbora gehiena, bizitzan dauden beste gauza inportante batzuk nahikoa berandurako utziz.

Gaur egun beste egoera bat bizi dugu baina badago hasiera hartatik bizirik mantentzen zaigun sentazio bat: gauzak oraindik egiteko daudela, sormen arloan bederen egiteko segitzen dutela. Denbora honetan guztian herri honek lehentasunak beste leku batzuetan kokatu ditu eta sorkuntza, Eliza katolikoak berak desagerrarazi duena, linbora kondenatu du. Eskuinaren instituzionalizazioak batetik eta ezkerrearen herrigintzaren planteamen-
duak bestetik inoren lekua betetzera eramanez du. Hori bai,



INES URRUTIA

denok euskararen alde. Euskara, euskarria, edukiaren gainetik kokatuz. Eta zertarako nahi dugu, bada, euskarri bat sormenik ezean, zer transmititurik ez badugu, modako hitza erabiltzeagatik?

Naizen belaunaldikoa izateagatik beharbada somatzen dut bizi dugun uneak baduela guk bizitako harekin antzik. Berriz ere aukerak zabalik ditugula. Badi-rudi gure banatzeko joerari batzearena gailentzen ari zaiola. Agian konturatu gara ez dagoela nahi duguna lortzeko beste biderik? Hala pentsatu nahi dut. Abertzale eta, ustez behintzat, ezkerrekoa sentituta itxaropentsu nago. Eta itxaropen hori ez zapuztea desio dut. Eta gustatuko litzaida-

ke batzea, oraindik ere gehiago gailentzea. Bidea egiten hasi behar dugu berriro eta hainbat alor berrantolatu beharko ditugu. Motxila bidaierako prestatu. Eta espero dut, berrantolaketa horretan, sorkuntza ez izatea motxilan daramagun soberazko pisua, baizik ahuleziak jotzen gaituenean piztu eta indarberrituko gaituzten intxaur, txokolata, edo barrita energetikoak, edo gaueko solasean entzuten diren historia eta istorioak. ■

«
Badirudi gure banatzeko joerari batzearena gailentzen ari zaiola. Agian konturatu gara ez dagoela nahi duguna lortzeko beste biderik? Hala pentsatu nahi dut. Abertzale eta, ustez behintzat, ezkerrekoa sentituta itxaropentsu nago
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gintuen Senpereko mundutar lakura itsasoratu behar larriak. Eguraldi hobetuak aurtengoak, ongi baliatuak. Eta metafora egokia iruditu zait Sustairena, Berri Txarrak-ek kantuz errepikatzen duena. Eta kantuek sortzean dituzten menpekotasunetatik bera baino libreago, igandeko urratsari lehortek jota dabilenaren hezegunerantzako ibilaldiaren antza hartzen diot nik. Nahiago nuke gure urratsak ari, ari, Toquero lehendakari basamortutik, presoak etxera oasiari buruz zuzenduko bagenitu, nahiz eta jakitun izan hortik itsasoa Kamerun baino urrunago gera-

Bildu

tzen zaigula. Pausaje gamelu baldartsuan ere, bidea egin egiten da *gepesea* lagun, norabide eta tarteko helmugak kide. Hezegunetik hezegunera, hornitzetik hornitzera kementsu, sortzeke dugun bizi hondartza gogoan bagoaz, hirugarren belaunaldia motxilatzen. Atzerantz so eginez, ez dira gutxi izan igarotako lehortek, ikusezinak, dunak paisaia zuloak talaia, basamortua erraustegi. Atez ate, auzoz auzo, herriz herri, bailaraz bailara basamortua hezegunetu ondorengoek itsasoa iritsi eta goza dezaten, gure ibilaldiak zentzu hornigarria izan dezan. Lasaitu ederra saskibaloian legez laugarren laurdena jokatzen ari garenontzat. ■